



Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren ebazpena, 2017ko irailaren 4koa, Euskadiko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan lekuan lekuko berritzegunearekin batera egiten diren prestakuntza-ekintzen egiaztapenerako baldintzak eta prozedura ezartzen dituena. «BerritzePrest»

Hezkuntza Sailaren barruan, hezkuntza-prozesuak hobetzearen ikastetxeekin elkarlanean jardutea helburu hartuta, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak daude (berritzeguneak). Aholkularitza, prestakuntza, berrikuntza, esperimentazioa eta ikerketa: horiek dira lekuan lekuko eta/edo lurraldeko hezkuntza-baliabide horien berariazko xedeak.

Horrenbestez, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak ematea da berritzeguneen zereginik funtsezkoenetako bat, ikastetxeek beren prestakuntza-proiektuak garatu ditzaten, hezkuntza-berrikuntzan aurrera egin dezaten eta diseinua ere hobetu dezaten. Testuinguru horretan, berritzeguneek aholkularitza- eta prestakuntza-saioak egin ohi dituzte lekuan lekuko ikastetxeetan, eta ikasturtean zehar alde zuzeneko egituraturako eta planifikaturako **garrantzi handiko esku-hartzeak** egiten dituzte. Esku-hartze horiek, zenbaitetan, Hezkuntza Sailaren deialdi espezifikoaren babesean onartutako ekimen edo proiektuekin lotuta egoten dira. Beste zenbaitetan, ordea, ikastetxeen eta lekuan lekuko berritzeguneen artean adostutako prestakuntza-proposamen batean oinarrituta egiten dira. Proiektuei lotutako esku-hartzeetan parte hartzen duten irakasleei, egiten dituzten prestakuntza-orduen ziurtagiria ematen zaie, oro har hala ezarrita egoten delako proiektuak arautzen dituzten deialdietan. Ikastetxeak eta berritzeguneak itundutako garrantzi handiko esku-hartzeetan, ordea, ez da halakorik gertatzen.

Horregatik guztiagatik, hain zuzen, ikastetxeetan egiten diren prestakuntza-ekintzek bete beharreko betekizun eta baldintzak garbi zehazteko, eta jarduera horiek proiektuei loturik ez daudenean irakasleek haietan parte hartu izanaren ziurtagiria eskuratu ahal izateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua. Helburua

1.- Ebazpen honen helburua da lekuan lekuko berritzegunearekin elkarlanean ikastetxeek ikastetxean bertan egiteko proposatzen dituzten prestakuntza-ekintzen egiaztapenerako baldintzak eta prozedura ezartzea.

2.- Hezkuntza Sailaren deialdi espezifikoaren bidez onartutako proiektuei loturik ikastetxeek egindako prestakuntza-ekintzak ez dira ebazpen honetan kontuan hartzen, horietan parte hartzen dutenei prestakuntza aitortzeko eta ziurtagiria emateko beharrezkoak diren baldintzek erregulazio propioa baitute.



2. artikulua. Prestakuntza-ekintzen hartzaileak

1.- Prestakuntza-ekintza bat eskatzeko eta haren egiaztapena egiteko, prestakuntzak ikastetxeko irakasleentzat izan beharko du eta gutxienez 10 irakaslek hartu beharko dute bertan parte, 10 kide edo gutxiagoko klaustroak dituzten ikastetxeen kasuan izan ezik. Azken kasu horretan, gutxienez irakasleen % 80k parte hartzea eskatuko da.

2. Hezkuntza-komunitateko beste sektore batzuetako langileek parte hartu ahal izango dute prestakuntza-jardueran, betiere aurreko puntuan adierazitako baldintzak betez gero.

3.- Prestakuntza-ekintzaren hartzaile den taldeak hartan elkarrekin parte hartzeko eta inplikatzeko konpromisoa hartzen du. Beraz, onartutako proposamenari dagokionez, parte-hartzaileen % 10 baino gehiagok justifikaziorik gabeko baja ematen badu, bertan behera utziko da prestakuntza-ekintza.

3. artikulua. Egiaztapena jaso dezaketen prestakuntza-ekintzak

1.- Prestakuntza-ekintzek baldintza hauek bete behar dituzte ikastetxeek proposatu ahal izateko eta ondoren egiaztatuak izateko:

a) Edukia:

-Ikastetxeko irakasle-talde esanguratsu baten (saila, hezkuntza-, ziklo- edo etapa-taldea, etab.) prestakuntza- eta hobekuntza-premiekin bat etorri behar dute, eta ikastetxearen testuinguruan bertan sor litezkeen arazoei egin behar diete aurre, ikasgelako edo ikastetxeko eguneroko lanei loturiko zeregin espezifikoak gauzatu.

-Ikastetxeko ebaluazioen bitartez detektatutako premiei loturik egongo dira, ikastetxeko hobekuntza-planeko helburuekin bat egingo dute, ikastetxeko helburu estrategikoak lortzearen alde egingo dute lan, eta ikastetxeko urteko ekintza-planean propio aipatuko dira.

- Eguneroko praktketan oinarrituta denen artean egindako azterketak eta gogoetak hartuko dituzte ardatz, eta, praktika horiek hobetze aldera, ikastetxeko irakasleen hobekuntza eta garapena sustatuko dituzte; lankidetzak, ikaskuntzan, autoprestakuntzan eta autoebaluazioan oinarrituko dira, eta ikasgelako edo ikastetxeko eguneroko lanean zuzenean eragitea hartuko dute oinarri.

b) Iraupena: Prestakuntza-jarduera bakoitzaren proposamenean, ekintzak gutxienez 15 ordu eta gehienez 30 ordu iraun beharko du. Hala ere, horien egiaztapena 15 edo 30 ordukoa izango da. Lan-saioak taldeka edo azpitaldeka egin daitezke. Saioek 90 minutuko edo gehiagoko iraupena izango dute.

c) Modalitatea: Prestakuntza-ekintzak presentzialak izango dira eta, oro har, eskola-orduetan egingo dira. Hala eta guztiz ere, prestakuntza-ekintza egiteaz batera Berritzeguneak kudeatutako beste saioen bat proposatzen bada, eskola-orduetatik kanpo ere egin ahal izango da saio bat edo beste, eta ikastetxeko nahiz kanpoko irakasleek ere parte hartu ahal izango dute haietan.



2.- Prestakuntza-ekintza ikasturte batean hasi eta bukatzeko modukoa izango da. Dena dela, epe luzeagoko jardueren proposamenak ere egin daitezke: zenbait ikasturtetako iraupena duten jarduerak, esate baterako. Horrelakoetan, ikastetxeek urtero berritu eta zehaztu beharko dute beren prestakuntza-proposamena.

4. artikulua. Eskabideak, epeak eta dokumentazioa

1.- Ikasturtea bukatu baino lehen, ikastetxeak ikasturteko memoria eta hurrengo urteko ekintza-planaren aurredeinua egiten ari direnean, prestakuntza-jardueraren bat egiteko interesa duen ikastetxeko zuzendaritzak tokiko berritzegunera joango dira, hurrengo ikasturtean garatu nahi duten prestakuntza-ekintzaren inguruko proposamena egiteko laguntza eman diezaieten (I. ERANSKINA).

2.- Eskabidea jaso ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak (edo zuzendaritza ordezkatzeko duen batzorde pedagogikoko kideak) eta tokiko berritzeguneko erreferentziatzeko aholkularitzak bi aldeek arteko –eta, hala badagokio, parte hartuko duten irakasleekin ere– bilerak egiteko egutegia adostuko dute, proposamena modu bateratuan zehazteko.

3.- Ikastetxearen eta tokiko berritzegunearen artean proposamena adostu ondoren, eta prestakuntza-ekintzaren inguruko zereginetan aholkularitza eta babesa emateko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak baldin badaude, proposamena urriaren 31 baino lehen onartu eta dagokion agirian jasoko da (II. ERANSKINA). Egun horretatik aurrera, eta hurrengo ikasturtera arte, ez da modalitate horretako proposamen gehiago onartuko. Prestakuntza-ekintzaren inguruko proposamena berritzegunearen web-orrian jarriko da, prestakuntza-ekintzei dagokien aplikazioan. Ikastetxeak bere Urteko Ekintza Planean jasoko du prestakuntza-ekintzaren inguruko proposamena.

4.- Prestakuntza-ekintzaren inguruko proposamenak alderdi hauek bildu ahal izango ditu:

- hasierako faseko saioak, zereginak zehazteko eta jarduerak nola egingo diren azaltzeko
- landu beharreko edukiak edo esparruak oinarritzeko, aztertze eta horri guztiari buruz gogoeta egiteko saioak
- jarduerak praktikan jartzeko saioak
- egindakoak aztertze eta baloratzeko saioak, jarduerak zer ondorio izan dituzten jakiteko eta/edo premia berriak identifikatzeko

5. artikulua. Prestakuntza-ekintzen jarraipena

1.- Prestakuntza-ekintzaren inguruko proposamena modu bateratuan koordinatuko dute berritzeagunearen erreferentziatzeko aholkularitzak eta ikastetxearen zuzendaritzak edo ikastetxea ordezkatzeko duen batzorde pedagogikoko kideak, eta bi aldeek izango dute prestakuntza-ekintza kudeatzeko ardura.

2.- Proposatutako jarduerak ikasturtean zehar egingo dira, eta maiatzaren 15erako bukatu beharko dira. Ondoren, azken txostena egingo da (III., IV. eta V. ERANSKINAK).



Ekintza egin, eta hartan parte hartu duten irakasleek eta erreferentziako aholkularitzak beren helburuak zenbateraino lortu dituzten ebaluatu behar da txostenean.

3.- Ikasturtean zehar nabarmentzeko moduko gorabeherarik izan bada, eta, horren ondorioz, ekintza bertan behera utzi bada, berritzegunearen zuzendaritzak horren berri eman beharko dio, Irakasleen Prestakuntza Zerbitzuaren bidez, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari, bertan behera utzitako jarduerak egiaztapenik jaso ez dezaten.

6. artikulua. Prestakuntza-ekintzen egiaztapena

1.- Prestakuntza-proposamenean aipatutako ekintzak egin ondoren, eta ikasturtea bukatu baino lehen, onartutako prestakuntza-ekintza bakoitzean parte hartu dutenen eta horretan emandako ordu guztien zerrenda bat igorriko diote berritzeguneetako zuzendaritzek Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako Irakasleen Prestakuntza Zerbitzuari. Horretarako, "Berritzegune eta Ingurugelen funtzionamendu-jarraibideak" agiriaren 2.3 eta 2.4 puntuetan adierazitako prozedura erabiliko da eta prestakuntza-ekintza "P" letrarekin kodifikatuko da. Ekintza aurreikusi bezala egin bada eta balorazio orokorra positiboa bada, parte-hartzaileei ofizioz eta banan-banan egiaztatuko zaizkie prestakuntza-ekintzan emandako ordu guztiak (hots, 15 edo 30 ordu).

2.- Hasiera-hasieratik prestakuntza-ekintzan parte hartzeko konpromisoa hartzen duten eta ezarritako partaidetza-baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileei soilik emango zaie egiaztapena, proposamenean adierazita ez zegoen irakasleren bat sartzen bada ere jarduera espezifikoren bat egitera ekintza garatzen zen bitartean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 11a.

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

Lucía Torrealday Berrueco

Berritzeguneko prestakuntza-jarduera ikastetxean | BerritzePrest
Actividad formativa en centro en colaboración con el Berritzeguneikasturtea
cursoI ERANSKINA ANEXO I
ESKABIDE ORRIA SOLICITUD DEL CENTRO

IKASTETXEAREN DATUAK DATOS DEL CENTRO

ikastetxearen izena: denominación centro:		kodea: código:	
tokia: localidad:		lurraldea: territorio:	
posta elektronikoa: correo electrónico:		telefonoa: teléfono:	
mailak niveles:	HH-EI <input type="checkbox"/> LH-EP <input type="checkbox"/> DBH-ESO <input type="checkbox"/> BATX <input type="checkbox"/>	ikasturtea: curso:	

PROPOSAMENAREN DATUAK DATOS DE LA PROPUESTA

proposamenaren izenburua título de la propuesta	
<input type="text"/>	
proposamenaren arduraduna responsable de la propuesta	
<input type="text"/>	
NAN DNI	lanpostua cargo
<input type="text"/>	<input type="text"/>

proposamenaren justifikazioa justificación de la propuesta
<input type="text"/>



helburuak: zer espero dugun <i>objetivos: qué se espera conseguir</i>	ebaluazio-irizpideak <i> criterios de evaluación</i>

aurreikusitako prestakuntza ekintza(k) <i>actividad(es) de formación previstas</i>

ANTOLAMENDU ALDERDIAK ASPECTOS ORGANIZATIVOS

lan metodologia <i>metodología de trabajo</i>	barne antolaketa eta denboralizazioa ¹ <i>organización interna y temporalización</i>

¹ prestakuntza-ekintzaren ordu kopurua, egutegiaren aurreikuspena eta lan saioen ordutegia
número de horas de la propuesta, previsión de calendario y franja horaria de las sesiones de trabajo

ikastetxeko irakasle kopurua
núm de profesores/as del centro

aurreikusitako partehartzaile kopurua
núm. de participantes previstos

_____ (e)n, _____ ko _____ aren _____ (e)(a)n

En _____, a _____ de _____ de _____

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

izpta.: _____

[zigilua]



ikasturtea
curso

Berritzeguneko prestakuntza-jarduera ikastetxean | BerritzePrest
Actividad formativa en centro en colaboración con el Berritzegune

II ERANSKINA ANEXO II
LANKIDETZA KONPROMEZUA COMPROMISO DE COLABORACIÓN

IKASTETXEAREN DATUAK DATOS DEL CENTRO

[Berritzegunean betetzeko / a cumplimentar en el Berritzegune]

ikastetxearen izena: <i>denominación centro:</i>		kodea: <i>código:</i>	
proposamenaren izenburua: <i>título de la propuesta:</i>			
BGko arduraduna taldea: <i>equipo / resp. berritzegune:</i>			

eskabide edo eskuhartze mota: <i>tipo de solicitud o intervención:</i>	Hezkuntza Saileko Deialdia <i>Derivada de convocatoria</i>	<input type="checkbox"/>	ekintzaren kodea <i>código de actividad</i>	<input type="text" value="P"/>
	Ziurtagiria egiteko ekintza <i>A certificar vía BerritzePrest</i>	<input type="checkbox"/>		
	Ziurtagirik gabe <i>Intervención sin certificado</i>	<input type="checkbox"/>	Egiatzatzeko ordu kopurua <i>núm. horas a certificar</i>	<input type="checkbox"/> 15

ESKUHARTZEAREN PLANIFIKAZIOA PLANIFICACIÓN DE LA INTERVENCIÓN

[Berritzegunean betetzeko / a cumplimentar en el Berritzegune]

BGko saio kopurua: BGko ordu kopurua: ordu kopurua ikasgelan:

[parte hartuko duten aholkularitzak, esku-hartzeen maiztasuna, saio kopurua, edukiak, baliabideak...]
[asesorías implicadas, frecuencia de las intervenciones, número de sesiones, contenidos, recursos...]



AURREIKUSITAKO IRAKASLEEN ZERRENDA RELACIÓN DE PROFESORES/AS

ikastetxeko irakasle kopurua
núm. de profesores/as del centro

ekintzan parte hartzen dutenen kopurua
núm. de participantes en la propuesta

	nan/dni	abizenak apellidos	izena nombre	lanpostua-maila puesto-nivel
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				

_____ (e)n, _____ ko _____ aren _____ (e)(a)n

En _____, a _____ de _____ de _____

BERRITZEGUNEKO AHOLKULARIA(K)

izpta.: _____

BERRITZEGUNEKO ZUZENDARIA

izpta.: _____

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

izpta.: _____



Ikasturtea
curso

Berritzeguneko prestakuntza-jarduera ikastetxean | BerritzePrest
Actividad formativa en centro en colaboración con el Berritzegune

III ERANSKINA ANEXO III
JARDUERAREN OROITIDAZKAIA MEMORIA DE LA ACTIVIDAD

IKASTETXEAREN DATUAK DATOS DEL CENTRO

ikastetxearen izena: denominación centro:		kodea: código:	
proposamenaren izenburua: título de la propuesta:			
BGko arduraduna taldea: equipo / resp. berritzegune:			

GARATUTAKO EKINTZAK ACTIVIDADES REALIZADAS

edukia contenido	data fecha	ordutegia horario	saio mota* tipo de sesión

[*] O: saio orokorrak / sesiones generales
KA: kanpoko aholkularitza / asesoramiento externo
TL: lan saioa talde txikian / trabajo en pequeños grupos

EBALUAZIOA EVALUACIÓN

helburuak objetivos	adierazleak indicadores	Lorpen maila grado de consecución

_____ (e)n, _____ ko _____ aren _____ (e)(a)n

En _____, a _____ de _____ de _____

BERRITZEGUNEKO AHOLKULARIA(K)

izpta.:

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

izpta.:




IRAKASLEEN ZERRENDA RELACIÓN DE PROFESORES/AS

nan/dni	abizenak apellidos	izena nombre	lanpostua-maila puesto-nivel	%
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				
18				
19				
20				
21				
22				
23				
25				
25				

En _____ (e)n, _____ ko _____ aren _____ (e)(a)n
En _____, a _____ de _____ de _____

IKASTETXEKO ZUZENDARIA
izpta.: _____



[zigilua]

ikasturtea
curso**Berritzeguneko prestakuntza-jarduera ikastetxean | BerritzePrest**
*Actividad formativa en centro en colaboración con el Berritzegune***IV ERANSKINA ANEXO IV****BERRITZEGUNETIK JASOTAKO LAGUNTZA ETA AHOHKULARITZAREN BALORAZIOA**
*VALORACIÓN DEL APOYO/COLABORACIÓN DEL BERRITZEGUNE***IKASTETXEAREN DATUAK DATOS DEL CENTRO**

ikastetxearen izena: <i>denominación centro:</i>		kodea: <i>código:</i>	
proposamenaren izenburua: <i>título de la propuesta:</i>			
BGko arduraduna taldea: <i>equipo / resp. berritzegune:</i>			

1 eta 10 bitartean puntuatu - Prestakuntza ekintzaren ikastetxeko arduradunak betetzeko]*Puntuar de 1 a 10 - A cumplimentar por el/la responsable de la actividad en el centro*

Aholkularitzaren lankidetzaren proposamenaren diseinu, garapen eta jarraipenean <i>Colaboración de la asesoría en el diseño, desarrollo y seguimiento de la propuesta</i>	
Edukien eta aholkularitzak ekoiztutako materialen egokitasuna <i>Adecuación de los contenidos e idoneidad de los materiales aportados por la asesoría</i>	
Aholkularitzaren lankidetzaren dinamizazioan eta talde-lanaren kudeaketan <i>Colaboración de la asesoría en la dinamización y en la gestión del trabajo en grupo</i>	
Egindako aholkularitza-lanaren sistematizazioa <i>Sistematicidad en el trabajo de asesoramiento realizado</i>	
Lankidetzaren giroa, prestatasuna, aholkularitzarekiko sintonia maila <i>Clima de colaboración, disponibilidad, grado de sintonía en el trabajo con la asesoría</i>	
Beste eragileren esku-hartzeari buruzko gogobetetasun maila (hala balegokio) <i>Grado de satisfacción respecto a la intervención de otros agentes (si procede)</i>	

batez
bestekoa

ondo egindakoa <i>lo que se hizo bien</i>	hobekuntzarako proposamenak <i>propuestas de mejora</i>

Arlo honetan ikastetxean aurreikusten diren beste eskuhartzeak*Previsión de nuevas demandas al Berritzegune en este campo*

**IKASLEEN IRAKAS-APRENDIZAIA PROZESUAN IZANDA KO ERAGINAREN BALORAZIOA**
REPERCUSIÓN EN EL PROCESO DE ENSEÑANZA-APRENDIZAJE DEL ALUMNADO**1 Gelan | en el aula**

1	2	3	4
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

justifikazioa eta oharrak *justificación y observaciones***2 Ikastetxean | en el centro**

1	2	3	4
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

justifikazioa eta oharrak *justificación y observaciones*

_____ (e)n, _____ ko _____ aren _____ (e)(a)n

En _____, a _____ de _____ de _____

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

izpta.: _____

[zigilua]


 ikasturtea
 curso

Berritzeguneko prestakuntza-jarduera ikastetxean | BerritzePrest
Actividad formativa en centro en colaboración con el Berritzegune
V ERANSKINA ANEXO V
BERRITZEGUNEKO BALORAZIOA VALORACIÓN POR PARTE DEL BERRITZEGUNE
IKASTETXEAREN DATUAK DATOS DEL CENTRO

ikastetxearen izena: <i>denominación centro:</i>		kodea: <i>código:</i>	
proposamenaren izenburua: <i>título de la propuesta:</i>			
BGko arduraduna taldea: <i>equipo / resp. berritzegune:</i>			

1 eta 10 bitartean puntuatu / puntuar de 1 a 10

Aurreikusitako parte-hartzearen betetzea <i>Cumplimiento de la participación prevista</i>	
Aurreikusitako egutegiaren betetzea <i>Cumplimiento del calendario previsto</i>	
Aurreikusitako ordutegiaren-saioen betetzea <i>Cumplimiento del horario-sesiones previstas</i>	
Ikastetxeak ekoiztutako espazioen, baliabide teknikoen... egokitasuna <i>Adecuación de los espacios, medios técnicos... posibilitados por el centro</i>	
Ikastetxeak ezarritako egutegi-ordutegiaren egokitasuna <i>Idoneidad del calendario- horario habilitado por el centro</i>	
Proposamenaren arduradunarekin lankidetzatza <i>Colaboración con la persona responsable de la propuesta</i>	
Partehartzaileen inplikazioa <i>Implicación de los participantes</i>	
Beste eragileren inplikazioa (zuzendaritza taldea, beste irakasle batzuk...) <i>Implicación de otros agentes del centro (equipo directivo, profesorado...)</i>	
Hasierako proposamenean aurreikusitako edukietara egokitzea <i>Ajuste a los contenidos previstos en la propuesta inicial</i>	
Lan-giroa <i>Clima de trabajo</i>	

 batez
 bestekoa

Proiektuaren garapenaren balorazio orokorra <i>valoración global del desarrollo del proyecto</i>	hobekuntzarako proposamenak <i>propuestas de mejora</i>

BERRITZEGUNEKO AHOLKULARIA(K)

izpta.: _____